

DIRU SARRERAK

Enpresaren sarrerak hiru izango lirateke. Sortutako energiaren salmenta, ongarri-likidoaren salmenta eta diru laguntzak.

Hasteko, sarrera iturri nagusia jasotako gorotzak eraldatu ondoren lortutako energia saltzea izango litzateke. Bertatik, etekin handiena lortuko genuke.

Horrez gain, gorotzen eta pixaren soberakinetatik, 5-6 aste ondu ondoren, ongarri likidoa lortu eta salduko litzateke. Litroa 7 euroan salduko genuke eta kantitate handiak erosiz gero, deskontuak aplikatuko genituzke.

Azkenik, gure langileak sozialki baztertuak izatean eta hauei lan aukera bat eta gizartean barneratuak izateko aukera emango genienez, diru laguntzak jasoko genituzke.

